

3.FUNTSEZKO ELKARTEAK

Gure enpresarentzat funtsezkoak diren elkarteez hitz egiten ari garenean, gure ideia aurrera eramaten lagunduko diguten elkarteetan pentsatzen dugu, hala nola:

1. LISAPEN MAKINAK EKOIZTEN DITUZTEN ENPRESAK

Bigarren enpresa-bazkide nagusiak plantxatzeko tablak edo makinak egiten dituzten enpresak dira: "Domus" edo "Bosch" enpresak.

Bosch:

Bosch enpresarekin harremanak eukitzea beharrezkoa dela pentsatzen dugu, hainbat zerbitzuetarako beharrezkoak baitira, xehetasunetarako adibidez, trajeak edo luxuzko hainbat jantziarako. Bezeroen jantziak xehetasun guztiak bikain egoten dira plantxa honen ezaugarriei esker, egun garrantzitsu baterako edo haiek nahi dutenerako.

Domus:

Lehen esan dugun bezala, "Domus" enpresa funtsezkoa da gure zerbitzurako, enpresa modernoa eta erreferentea delako, ikuspegi industrialaren eta autozerbitzuaren sektorean. "Domus" ek egungo tindategi eta garbitegiarako plantxa industrialak eskaintzen du, "plantxa industrial" horri esker, banakako xafla batekin baino arropa gehiago lisatu dezakegu, denbora asko aurrezten dugu eta gure zerbitzuaren produktibitatea optimizatzen dugu. Horregatik, enpresa honekin elkartuz gero, gure zerbitzuan emango dugun pausoa izugarria izango da eta erraztasun asko bermatuko dizkigu.

2. LISAPENERAKO PRODUKTUAK EKOIZTEN DITUZTEN ENPRESAK.

Gure zerbitzuan lagundu ahal diguten enpresak bilatu ondoren, hau aurkitu dugu:

Care+Protect:



Para el ratón ver encima de la imagen para ampliarla

Care+Protect kalitate hobeko zerbitzua izaten lagundu ahal digun enpresa bat da. Plantxaren zolako garbiketa profesionaleko barrekin, denborak aurrera egin ahala sortzen diren plantxaren orbanak kendu ahal ditzakegu, lisatzea errazten digu eta plantxaren zolari errendimendu hobea ematen dio. Enpresari eta produktu horiei esker, bezeroaren arropa zikintzea saihestu dezakegu, eta erraztasun handiagoa ematen digu lisatzeko makina arropatik pasatzerakoan.

Naiara Bécares, Pablo Alonso, Aimar Arozamena eta Ane Gorostiza.

Toke enpresa:

Hainbat produktu erabiltzen ditugu gure zerbitzua kalitate hobeto bat izateko, baina, horretarako, produktu kimikoak erabili behar ditugu. Produktu hoiek, osagai bereziak dute, beraz, hainbat enpresa ditugu hornitzaile bezala, geure produktuak baieztatze eta eskaintze. Adibidez: **“Toke”** enpresa.

Enpresa honek, hainbat produktu ekoizten ditu arropa gunerako. Zehazki, enpresa honek, guk erabiltzen dugun produktu baten hornitzailea da. “Berehalako aprestua”. Produktu honek, spray moduan ekoizten da, eta spray honek arropa dituen zimurak ezabatzen ditu eta usain naturalarekin uzten ditu.

Rayen enpresa:

Enpresa honek, lisapenerako erabili behar diren tresnak garbitzeko produktuak sortzen ditu. Adibidez, lisatzeko makina garbitzeko. Lisatzeko makina gure oinarritzko tresna da eta erabilera eta zaintza on bat eman behar diogu, horregatik saiatzen gara ahalik eta kalitate hobereko produktuak erabiltzen egoera hauetarako. Kasu honetan, gure enpresa hornitzailea “Rayen” enpresa da.

Lisatzeko makina garbitzeko “limpia manchas blister” erabiltzen dugu. ‘Stick’ moduan erabiltzen den produktua da. ‘Stick’ hori lisatzeko makinaren burdinatik pasatzen da eta berehala garbitzen da, oso efizientea da.



3. Eusko Jaurlaritza:

Hirugarren mailako bazkide bat Eusko Jaurlaritza izango litzateke. Gure enpresarekin harremanak ezarri ahal dute, hainbat pertsonari plan bereziak eskaintzen baitizkiegu, eta haiek, bestalde, laguntza-planetan sar dezaketelako gure enpresaren zerbitzua. Hau da, gizarte-talde batzuei laguntzen diegu, kasu honetan, ahulenak baitira.

Guraso izan berri diren helduentzat ere laguntza eta produktu desberdinak erabiltzen ditugu, eta hori helburu bat izan daiteke tokiko gobernuarentzat. Oro har, zerbitzu bereziekin biztanle euskaldunen bizi-kalitatea hobetzen eta adinekoen ongizatea sustatzen saiatzen gara.